



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

Espediente zk./Nº expediente: 2025SDBD0033

Gaia/Asunto: 3.2 Dirulaguntza lerroa: Ikasleen guraso elkarteak (IGE) - 2026 / Línea de subvención 3.2: Asociaciones de madres y padres de alumnos/as (AMPA) - 2026

Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

DEKRETUA

AURREKARIAK

Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorrak, azaroaren 17koak, xedatzen du tokiko udalbatzek dirulaguntzen oinarri arautzaile egokiak ezartzeko beharra.

Araudi hori aplikatzeko, Udalak onartu du Errenteriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO).

2025eko azaroaren 19an 2025/3249 zk.ko dekretu bidez Hezkuntza sailaren Programetarako Dirulaguntzak emateko Oinarri Orokorrak onartu ziren.

Oinarri Orokor hauetan zehazten da, dirulaguntzaren lerro hauen zehaztapenak bakoitzari dagokion deialdiarekin batera onartuko diren oinarri espezifikoetan daudela jasota.

Erabaki honetan deitzen diren dirulaguntzak Udalaren 2024-2027rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan bilduta daude.

Zenbatekoa 2026ko aurrekontuko 1.0630.481.01.337.20 partidaren kontura izango da:

Dirulaguntza lerro honetarako dagoen aurrekontua 36.000 eurokoa da.

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horren zenbatekoa handituko balitz, deialdi

DECRETO

ANTECEDENTES

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece la necesidad de que las corporaciones locales establezcan las oportunas bases reguladoras para el reparto de subvenciones.

En aplicación de esta normativa el Ayuntamiento de Errenteria ha aprobado la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015).

Mediante Decreto nº 2025/3249 de fecha 19 de noviembre de 2025 se aprobaron las Bases Generales para la concesión de Subvenciones a Programas de Educación.

En dichas bases generales se especifica que las especificidades de cada una de las líneas de subvención vienen recogidas en las bases específicas contenidas en la convocatoria correspondiente a cada una de ellas.

Las líneas de subvención cuya convocatoria es objeto del presente acuerdo, están incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento 2024-2027.

El importe será con cargo a la partida 1.0630.481.01.337.20 del presupuesto de 2026:

El presupuesto disponible para esta línea de subvención es de 36.000 euros.

Si dicha partida posteriormente fuese ampliada en base a la correspondiente modificación



**ERRENTERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Espedienteen jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

Hezkuntzako Teknikariak, 2026ko urtarrilaren 7an txostena eman du.

Kontuhartzaileak 2026ko urtarrilaren 22an espedienteak fiskalizatu du.

Dirulaguntza arautzen duten oinarri zehatzak eranskin gisa eranstean dira.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta ogasuna eta garapen ekonomikoko teknikariak espedienteen jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- 2026ko dirulaguntzak emateko deialdia onestea - 3.2 Dirulaguntza lerroa. Ikasleen guraso elkarteak (IGE) - 2026, eranskinean jasota dauden oinarri espezifikoak eta dirulaguntzak emateko oinarri orokorren arabera.

2.- Gehienez 36.000 euroko **gastua baimentzea** 2026. urteko Udal Aurrekontuaren hurrengo partiden kontura: 1.0630.481.01.337.20

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horien kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

3.- Ebazpen honen **berri ematea** Udalbatzaren

presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

La técnico de Educación ha emitido informe con fecha 7 de enero de 2026.

La interventora con fecha 22 de enero de 2026 ha fiscalizado el expediente.

Se adjuntan como anexo las bases específicas que regulan la subvención.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por la técnica de hacienda y desarrollo económico a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

RESUELVO

1.- Aprobar la convocatoria para la concesión de subvenciones 2026 - Línea de subvención 3.2 Asociaciones de madres y padres de alumnos/as (AMPA) - 2026, de conformidad con las bases específicas que se adjunta como anexo, y de conformidad con las Bases generales que regirán la presente convocatoria.

2.- Autorizar un gasto máximo de 36.000 euros a cargo de la siguiente partida del Presupuesto Municipal de 2026 : 1.0630.481.01.337.20

Si dichas partidas posteriormente fuesen ampliadas en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

3.- Dar cuenta de la presente resolución al Pleno



**ERRETERIA
UDALA**

Hezkuntza / Educación

hurrengo osoko bilkuran.

municipal en la siguiente sesión ordinaria.

4- Deialdi hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen
argitaratzea.

4- **Publicar** la presente convocatoria en la Base de
Datos Nacional de Subvenciones.

Erreterian, sinaduran agertzen den datan

Erreteria, en la fecha de la firma

Hezkuntzako zinegotzi delegatua / La concejala delegada de educación

Itsaso Cruz Echeverria



ERANSKINA – DIRULAGUNTZA LERROA: 3.2 Dirulaguntza lerroa: Ikasleen guraso elkarteak (IGE)
- 2026

ANEXO – LÍNEA DE SUBVENCIÓN: 3.2: Asociaciones de madres y padres de alumnos/as (AMPA)
- 2026

1.- Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntzaren xedea, Erreterian kokatutako ikastetxeetako Ikasleen Guraso Elkarteek (IGE) 2026an zehar egindako jarduera programak eragindako gastuei aurre egitea da.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira:

- Aipatutako elkarteek lan egiten duten ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako hezkuntza jarduerak eragindako gastuak. Era berean, jarduera horien antolakuntzak ekarritako gastuak.

-Ikasleen guraso elkarteak funtzionamendurako beharrezkoak diren azpiegitura, giza baliabide, baliabide material eta teknikoak gastuak.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa

Hezkuntza alorreko jarduerak kofinantatzeko dirulaguntzen zenbatekoa 2026ko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da.

– 2026: 1.0630.471.02.326.20: dirulaguntzak: Ikastetxeak, IGE eta hezkuntza entitateak, 2026ko aurrekontuari dagokiona (%100).

Diruz lagunduko den lerro honetarako 2026 urterako dagoen aurrekontua 36.000,00 €koa da.

1.- Objeto de la subvención

El objeto de la subvención es atender a los gastos derivados de las actividades realizadas durante el año 2026 por las Asociaciones de Madres y Padres de Alumnos/as (AMPA) de los centros educativos radicados en Errenteria.

Se consideran gastos subvencionables:

-Los gastos derivados de actividades educativas, dirigidas tanto al alumnado, como a madres y padres de alumnos/as, de los centros educativos donde desarrollan su actividad las asociaciones mencionadas. De la misma forma, los gastos correspondientes a la organización de estas actividades.

-Los gastos derivados de los recursos humanos, materiales y técnicos, así como de infraestructuras necesarias para el funcionamiento de las asociaciones de madres y padres de alumnos/as.

2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones

El importe de las subvenciones para cofinanciar actividades del ámbito de la educación irá con cargo a las siguientes partidas del presupuesto del año 2026:

– 2026: 1.0630.471.02.326.20: Subvenciones: Centros Escolares, AMPA, y entidades de ámbito educativo, del ejercicio 2026 (100%).

La disponibilidad presupuestaria para estas líneas de subvención para el año 2026, asciende a 36.000,00 €



ERRENTERIA UDALA

Hezkuntza / Educación

Egoki den kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu ekitaldian izango da.

2026ko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

Erakunde edo pertsona onuradunak idatziz jakinarazi beharko du dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein egoera objektibo zein subjektiboren aldaketa.

Aurkeztutako programan aldaketak onartuko dira, aurkeztutako aurrekontuan dagozkien doikuntzekin, beti ere Udalak aurretik aldaketa onartu badu.

3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatze era

Dirulaguntzetarako aukera izan dezakete hezkuntza intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Errenterian kokaturiko ikastetxeetako Guraso Elkarteek (IGE)

Si mediante la correspondiente modificación de crédito se incrementara la cantidad, se podrá proceder a una nueva autorización del gasto imputable a esta convocatoria.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de esta convocatoria.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2026 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Será obligación de la entidad o persona beneficiaria comunicar por escrito la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

Se admitirán modificaciones en el programa presentado realizando los correspondientes ajustes en el presupuesto presentado siempre que el Ayuntamiento haya aprobado previamente la modificación.

3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos

Podrán optar a las subvenciones las Asociaciones de Madres y Padres de Alumnos/as (AMPA) de los centros educativos radicados en Errenteria que realicen actividades de interés



**ERRETERRIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

educativo.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute, Erreterriako Udalak 2026. urtean diru-laguntzak emateko oinarri orokorretako seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako agiri hauek:

- NAN (eskaera norbanako batek egina bada) edo IKZ (eskaera erakunde publiko nahiz pribatu batek egina bada)

- Eskaria egiten duen erakundeak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria, baldin eta lehendik aurkeztu ez bada edo aldaketaren bat egon bada.

Proiektuaren aurrekontua eta memoria.

Erreterriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu.

Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainketa egunean izatearen kontsulta.

Foru-ogasunak – Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

4.- Eskabideak aurkezteko epea

Aurreikusitako jarduera programetarako dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea

Documentación a presentar con la solicitud:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, de acuerdo con lo establecido en la base Sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Erreterria durante el año 2026, la siguiente documentación:

- DNI (si la solicitud es a título individual) o NIF (si la solicitud la presenta una asociación o entidad pública o privada)

- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante, si no ha sido presentado con anterioridad o si ha habido alguna modificación).

- Presupuesto y memoria del proyecto.

El Ayuntamiento de Erreterria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:

Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.

- Tesorería General de la Seguridad

Social – Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.

- Diputación Foral de Gipuzkoa – Consultade estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

4.- Plazo de presentación de solicitudes

El plazo para la presentación de las solicitudes de subvención para programas de actividades



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

hilabetekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.- Balorazio batzordea

Dirulaguntzen ildo honen balorazio-batzordea, oinarri orokorretako 8. oinarrian adierazitako pertsonen gain, kultura-aniztasunaren, garapenerako lankidetzaren eta giza eskubideen azpiarloko teknikariak ere osatuko du.

6.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka bidezkoa izango da.

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako zenbatekoa onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa.

Eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

previstas será de un mes a contar desde el día siguiente a que se publique la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

5.- Comisión de valoración

La Comisión de valoración de esta línea de subvención estará compuesta, además de por las personas señaladas en la base 8 de las bases generales, por la técnico de la subárea de diversidad cultural, cooperación al desarrollo y derechos humanos.

6.- Criterios de valoración de las solicitudes

El criterio de valoración de las solicitudes será el de concurrencia competitiva.

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, y así se calculará el valor económico de cada punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por el número de puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir.

En todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

BALORAZIO IRIZPIDEAK		CRITERIOS DE VALORACIÓN
ELKARTE ESKATZAILEARI DAGOZKIONAK	(68)	EN CUANTO A LA ASOCIACIÓN SOLICITANTE
Elkartearen ezaugarriak		Características de la asociación
Bazkide kopurua	(1)	Número de socios/as
20 kideetik gora	1	Más de 20 socios/as
Bolondres kopurua	(1)	Número de voluntarios/as
20 kideetik gora	1	Más de 20 socios/as
Bazkide eta/edo bolondresen adina	(1)	Edad de los/as socios/as y voluntarios/as



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

35 urtetik beherakoak (%20a baino gehiago)	1	Menores de 35 años (más del 20%)
65 urtetik gorakoak (%20a baino gehiago)	1	Mayores de 65 años (más del 20%)
Kontrataturako langile kopurua dirulaguntza eskatzeko momentuan	(10)	Número de trabajadores/as contratados/as en el momento de pedir la subvención
0 langile	10	0 trabajador/a
1 langile	7	1 trabajador/a
2 langile	3	2 trabajadores/as
2 baino langile gehiago	0	2 o más trabajadores/as
Bazkide, bolondres eta langileen profila	(1)	Perfil de socios/as, voluntarios/as y trabajadores/as
Sexuen arteko oreka (% 40-60)	1	Equilibrio entre los sexos (40-60 %)
Etorkinak (% 5etik gora)	1	Inmigrantes (más del 5 %)
Aniztasun funtzionala dutenak (% 2tik gora)	1	Personas con diversidad funcional (más del 2 %)
Ikastetxeko ikasle eta familien ezaugarriak		Características del alumnado y familias del centro educativo
Ikasle kopurua	(3)	Número de alumnos/as
0-150	1	0-150
151-300	2	151-300
300 baino gehiago	3	Más de 300
Gela kopurua ikas-mailako	(3)	Número de clases por curso
1-2	1	1-2
2-3	2	2-3
3-4	3	3-4
ISEK maila (azken azterketaren arabera)	(20)	Nivel ISEC (de acuerdo a los últimos resultados)
Baxua	20	Bajo
Erdi-baxua	10	Medio-bajo
Erdi-altua	5	Medio-alto
Altua	0	Alto
Ikasle etorkinen portzentaia	(15)	Porcentaje de alumnado migrante



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

%0-5	1	0-5%
%6-20	7	6-20%
%21tik gora	15	Por encima del 21%
Aniztasun funtzionala duten ikasleen portzentaia	(8)	Porcentaje de alumnos/as con diversidad funcional
%0-5	1	0-5%
%6tik gora	8	Por encima del 6%
Jarduera kolektiboetan eta/edo udal jardueretan parte hartzea	Gehienez 5 Máximo 5	Participación en actividades colectivas y/o municipales
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Programa / jardueren ingurukoak	(88)	En cuanto al programa / actividad
Programaren ibilbidea, izaera eta aldizkakotasuna		Trayectoria, naturaleza y periodicidad del programa
Jarduera programa: 2024 urtean egingo diren jardueren zerrenda	Gehinez 4 puntu / Máximo 4 puntos	Programa de actividades: Actividades previstas para 2024
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Jardueren iraupena eta aldizkakotasuna	(4)	Duración y periodicidad de las actividades
Urtean behineko jarduera	1	Actividad anual puntual
Noizbehinkako jarduerak	2	Varias actividades puntuales
Urtean zehar	4	A lo largo del año
Programaren kalitatea: hezkuntza, genero eta kultur aniztasun ikuspegia		Calidad del programa: perspectiva educativa, de género e intercultural
Programa hezitzailea	(9)	Programa educativo
Balore indibidualen ordezkari kolektiboak sustatzea	3	Potenciar los valores colectivos, en lugar de los individuales
Bazterketa egoerak pairatzen dituzten kolektibo edo/eta norbanakoekiko errespetuzko eta elkartasunezko jarduerak sustatzea	3	Promover actitudes de respeto y solidaridad hacia colectivos y/o personas en situación de exclusión social
Jardueren antolakuntzan sustatzea kide oro subjektu aktibo bilakatzea	3	Promover la transformación de todas y todos los miembros en sujetos activos a la hora de organizar las actividades
Genero ikuspegia	(8)	Perspectiva de género



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

Hizkuntza eta iruditeria ez sexistari erreparatzea	2	Uso no sexista del lenguaje y el imaginario
Genero ikuspegia txertatzea proiektuaren helburuetan	2	Incorporación del punto de vista de género en los objetivos del proyecto
Genero ikuspegia txertatzea proposatutako jardueretan	2	Incorporación del punto de vista de género en las actividades propuestas
Genero ikuspegia txertatzea proiektuaren ebaluazioan	2	Incorporación del punto de vista de género en la evaluación del proyecto
LGTBIQ+ begirada	(2)	Mirada LGTBIQ+
LGTBIQ+ pertsonen ikusgarritasuna eta erreferentzialtasuna sustatzea	2	Promover la visibilidad y la referencialidad de las personas LGTBIQ+
Kulturartekotasuna	(8)	Interculturalidad
Kartel, eskuorri edo/eta erabiltzen diren irudi grafikoetan, kultura- eta jatorri-aniztasuna islatzea	2	Reflejar diversidad de orígenes y cultural en aquellos carteles, dípticos o materiales gráficos que se realicen
Gonbitetan, esku-orrietan eta halakoetan, herrian dauden bestelako hizkuntzak erabiltzea	2	Utilización de las diversas lenguas presentes en el municipio en invitaciones, folletos....
Egiten diren ekintzetan herrira iritsi berriak diren edo/eta bestelako jatorria dutenen parte hartzea sustatzea	2	Impulsar la participación en las actividades de las personas recién llegadas al municipio así como aquellas de orígenes diversos
Ekintzak ahalbidetzen duela, kultura arteko adierazpenak txertatzea	2	Siempre y cuando la actividad lo permita, incorporar expresiones interculturales
Programa / jarduera euskaraz garatzea	(8)	Desarrollo del programa / actividad en euskera
Euskara hutsez	8	Todo únicamente en euskera
Jarduera berriak, berritzaileak eta antzekorik ez dutenak izatea	Gehienez 5 puntu / Máximo 5 puntos	Actividades nuevas, novedosas e inexistencia de actividades similares
0,5 puntu jarduera bakoitzeko	0,5 puntos por cada actividad	
Herritarren esku-hartzea sustatzea, beste entitate eta eragile batzuekin lankidetzat	Promoción de la participación ciudadana, colaboración con otras entidades y agentes	
Herritarrei parte hartzeko aukera ematea	Gehienez 4 puntu / Máximo 4 puntos	Oportunidad para la participación ciudadana
0,5 puntu jarduera bakoitzeko	0,5 puntos por cada actividad	
Jarduera elkarre batek baino gehiagok antolatzea	Gehienez 5 puntu / Máximo 5 puntos	Actividad organizada por más de una asociación
0,5 puntu jarduera bakoitzeko	0,5 puntos por cada actividad	
Herritarrei parte hartzeko aukera	Gehienez 4 puntu /	Oportunidad para la participación ciudadana



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

ematea	Máximo 4 puntos	
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Jarduera elkarre batek baino gehiagok antolatzea	Gehienez 5 puntu / Máximo 5 puntos	Actividad organizada por más de una asociación
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Boluntarioen lana	Gehienez 4 puntu / Máximo	Trabajo de voluntarias y voluntarios
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Hartzaileak	(10)	Personas destinatarias
Herritar ororentzat, haur eta gazteak barne	5	Destinado a toda la ciudadanía incluidos niños/as y jóvenes
Haur eta gazteei zuzendutako programa / jarduera	10	Programa / actividad dirigida a niños/as y jóvenes
Programaren proiektzioa	(6)	Proyección del programa
Elkartearen ingurune proiektzioa soilik	0	Con proyección únicamente en el entorno de la asociación
Herri edo eskualde mailako proiektzioa	6	Con proyección en el municipio o en la comarca.
Finantza baliabideak	(2)	Recursos financieros
Autofinantzatzea (%)		Autofinanciación (%)
% 40 – 70	1	40 – 70 %
% 71 edo handiagoa	2	71 o superior

7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzen zenbatekoak era honetan ordainduko dira:

% 60 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

% 40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Gastu horiek 2026 urtean eginak eta

7.- Abono de la subvención

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

60 % tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

40 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

Dichos gastos deberán haberse realizado y



ordaindutakoak izan beharko dute.

abonado durante el ejercicio 2026.

8.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hori aurkezteko epe muga 2027ko urtarrilaren 31 izango da.

Zehazki, aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, ERRETERIAKO UDALAK 2026 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

8.- Justificación de la subvención

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 31 de enero de 2027.

En concreto, la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoséptima de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2026:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRETERIAKO UDALAK 2026 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2026. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025SDBD0033-DEKRETUA/DECRETO (ERREENTERIAKO UDALA)